

1990ko Urtarrilla / 12. Alea

EIBARKO UDALA. EUSKARA ZERBITZUA

...eta Kitto!

• **EUSKARAREN ERABILPENA GENERAZIOKA**

	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ZAHARRAK	GUZTIRA
ERDERAZ	1716	2124	5835	1359	11034
EUSKARAZ	483	167	741	834	2225
% EUSKARAZ	%21,96	%7,28	%11,26	%23,47	%16,78

• **EUSKARAREN ERABILPENA ZONALDEKA**

	AMAÑA	IPURUA	URKI UBITXA	HERRI ARDATZA	JARDIN — LEGARRE	URKIZU AZTIAN	GUZTIRA
ERDERAZ	1198	1283	44	4871	571	2447	11034
EUSKARAZ	161	367	674	980	135	538	2225
% EUSKARAZ	%11,84	%22,37	%6,12	%16,74	%19,12	%18,02	%16,78

Euskararen erabilpena eibarren

Aurten, Azaroko aste batetan, euskararen erabilpenari buruzko neurketa bat egin da Eibarren, bertako udaletxeo Euskara Zerbitzuaren eskutik. Kale neurketa hau, aste berbereko bost egunetan zehar egin da. Bertan aukeratutako egunak proposak izan dira, jende kopuru gehien hartzen den orduetan izan bait dira, hau da, giro berezi bati dagozkionak.

Kale neurketa egiteko asteko egunak, eta honen arabera dagozkion giroan aukeratutako orduak, honako hauek izan dira:

Asteartea: arratsaldeko 4,30-6,30 paseo eta jolasleku giroa.

Asteazkena: goizeko 10-12 erosketa giroa.

Osteguna: iluntzeko 7-9 txikiteo giroa.

Ostirala: iluntzeko 8-10 gazte giroa.

Igandea: eguerdiko 12-2 famili giroa.

Neurketarako tokiak aukeratzean, herria zonaldeka banatu da, ahal den esparru zabalena hartu asmoz.

Zonaldeak: Amaña, Ipurua, Urki-Ubitxa, Herri ardatza, Legarre, Jardinetak eta Urkizu izan dira.

Honela bai zonaldeka, bai giro bakoitzean eta bai adin bakoitzean hartutako datuen arabera, guztira Eibar osoan neurtutako pertsonen kopurua 13.259 biztanlekoa izan da, hauetatik 2.225 biztanlek jardun dutelarik euskaraz, hau da, %16,78a.

Erabilpena auzoka

Zonaldeka aztertuz, aipatu beharra dago orotara neurtutako biztanle kopuruaren erdia, Herri ardatzean kokatzen dela.

Honela, Amañan neurtutako 1359 pertsonetatik, %11,84-ak hitzegiten du euskaraz.

Ipuruan, 1.640 biztanle hartu dira, hauetatik %22,37-ak hitzegiten duelarik euskaraz.

Urki-Ubitxan oso kopuru murrizta neurtu da, 714, bertatik %6,12ak bakarrik hitzegiten duelarik.

Herri Ardatza ikertzean, orotara 5.851 pertsona neurtu direla esan beharra dago, euskara erabili dutenak %16,7a delarik.

Legarre-Jardinetan hartutako biztanle kopurua ere ez da handia izan, 706-koa, euskararen erabilera %19,1-ean kokatzen delarik. Eta azkenik, Urkizu zonaldean 2.985 pertsona hartu dira, hemendik %18-ak jardun duelarik euskaraz.

Generazioen erabilpena

Adin bakoitzean neurtutakoa ikustean, kontraste nabaria somatzen da. Alde batetik, generazio muturreko generazioek (ume eta zaharrek) %22 inguruan darabilte euskara. Aldiz, tarteko adinekoak —ba-



tez ere gazteak, bertatik neurtu diren %7,2ak bakarrik erabiltzen dute. Esan dezakegu beraz, garbi ikusten dela ume adinetik gazte adinera igarotzen den tarte horretan gertatzen den haustura hori.

Giro desberdinetako erabilpena

Azkenik, giroka ateratako emaitzak aztertuko ditugu.

Famili giroan somatu da euskara gehien, %22,6an; hemen pentsatu behar da hartutako pertsonak, gehienbat euskaraz emandako meza inguruetan hartu direla eta honek euskararen erabilpenaren portzentaia igo egiten duela. Erosketa giroan, portzentaia, %21ekoa da. Beste giroetan berriz, %15ean eman da erabilera; giro hauetan neurtutako biztanleak, gehienbat, gazteak eta helduak izan dira.

Ondorio gisa

Ondorio bezala azpimarratu beharra dago neurketa honen emaitzen fidagarritasuna zalantzan jartzekoa bada ere hor dago. Hemen aurkezten den neurketa-sistema kaleko erabilpenari dagokiona da; honekin ez dugu esaten beste neurketa motarik ezin daitekeenik egin. Pentsatu behar da neurketa-sistema hau lehen aldiz ematen dela Eibarren, lehenengo esperientzia izanez.

Jaso izan diren datuak, errealtatean eman daitekeen euskararen erabilpen osoaren portzentaia baino altuagoak izan daitezke. Honen arrazoia da batzutan giro «euskaldun» batetan mugitu garelako (meza adb.) eta honek datuak igo egiten duela.

Alex Legorburu, Elena San Martin



comercial
SUMOFIC, S.A.


ENPRESA-GESTIO
INTEGRATURAKO
PROGRAMAK
STANDARAK
ETA NEURRIRA

ZERBITZU INFORMATIKOAK

— DATU-BASEAK — OFIMATIKA — MANTENU-ZERBITZUA
• Ekipamandu eta programak • Telemandua
Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 FAX: 70 28 66 EIBAR

cualladó
GARRAIO URGENTEA

TLNOAK: 11 02 76 — 11 02 82
Otolak Etorbidea, 22 EIBAR



Jo ezak berriro!

Azken bi hilabete hauetan Txolarteko lokaletan txalaparta ikastaroa burutu da. Euskalerriko aintzinako musika tresna berezi honen doinuak entzuterakoan oroitzapen usainak sortzen dira.

Azken bi hilabete hontan Kultural ondotik pasazerakoan soinu erakargarri bat entzuteko aukera izan dugu eibartarrok, Txolarte lokaletatik irten-dako txalapartaren soinua hain zuzen. Bertan egon dira orainarte hamairu bat lagun instrumentu hau jotzen ikasten, eta ongi jotzen gainera ikusi ahal izan dugun bezala. Jesus Elorza, kurtsillo honen arduraduna, pozik dago ikasleak lortu duten mailarekin. Orain, kurtsillo hau bukatu ondoren, ikasleen kezka nagusia txalaparta bat lortzea da

jotzen jarraitzeko asmotan, eta horretarako laguntzaren baten atzetik dabilta.

Txalapartaren historiari buruz ez dago ezer idatzia. Orainarte uste izan da artzaiak euren artean komunikabide gisa erabiltzen ohi zutela, baina ez da horrela, txalaparta instrumentu erritmiko bat besterik ez da, hori bai, oso aintzinakoa. Badirudi akelarreetan jotzen zutela, baita aintzinan sagardoa zenean ospakizun gisa ere.

IRAKURLEAREN TXOKOA

EUTSI GAZTIAK, EUTSI

Ez dakitx batenbat akordauko dan be, baña nik beintzat zorixonak eman gura deusuedaz urtea bete dozelako zeun jardun bikain onetan, «...eta kitto» argitaratzen. Asko gustatzen jata ta oso gustora irakortzen dot baña motxa eitxen jata; oba izango litzateke orri geixau eukitzia edo sarri-xao argitaratzia, Eibarko ipuñak euskeraz irakurtzeko ez dao ta ixa ostantzekorik.

Adela

Kotxearen tripak aztertzen

Txalaparta kurtsillotik aparte, Euskara Zerbitzuak autoen konponketari buruz antolatu du beste kurtsillo bat. Autoaren pieza guztiak aztertu, bakoitzaren funtzioa ikasi, eta gero praktikan bakoitzak berebilen daukan funtzioa ondo jakitea da kurtsillo honen helburua. Rikardo Sologaitzua padre Galdoseko denda batean egiten du lan, motorrak saltzen. Udaletxeak kurtsillo hau emateko komentatu zionean gustora eman zuen baiezkoa. Klaseak dendan bertan ematen ditu gainera. Hasieran nola irtengo zenaren beldur zen, baina orain, aste pare bat besterik geratzen ez direnean guzti hau bukatzeko oso gustora dagoela esan digu. Bertan aritu izan diren ikasleak, ikasi dutenarekin suposatzen dugu argi izango dutela hemendik aurrera zer egin kotxeak bide erdian uzten badie!



ERREDAKZIOAREN OHARRA

«... Eta Kitto»ren erredakzio taldekoak, irakurlearen txokoa sekzioa mantentzearen alde agertzen bagara ere, zuen kolaborazioa beharrezkoa dugu. Horretarako animatzen zaituztegu nahi duzuenaren gainean idatz dezazuen.

Aurten ere gabonetan «Afariketan»

89ko ABENDUA



Antolatzailea:
EIBARKO UDALA
Euskara Batzordea

EPOSKI Koop. Elkarteak
(Kontsumo tailerrak)

Iazko moduan aurtengoan ere 720 umek izango dute aukera Gabonetako oporretan «Afariketan» jarduteko. Alde batetik kontsumo tailerrak eukiko dituzte eta bestetik jolasak, lehiaketak, txangoak eta jaialdia. Tailerren artean, gaztagintza, jostailugintza, publizitatea, jatzera eta moda azpimarra behar dira. Beraz, denbora librea ondo pasatuz, gauza berriak ikasi eta euskara praktikatzeko modu egokia. «Afariketan» programa finkatuz doa eta sustraituz Eibarko eskolaumeen artean. Aste barruan 220 ume inguruk dihardute eskolorduetatik kanpo gustokoa duten jardunaren bidez euskara praktikatzeko eta klaseetan ikasten dutena sakonduz euskaldun kompetentek bihurtzeko. Azkenik esan, opor ostean asteburu eta jarduera jarriko dela martxan.

SARIKETA



Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno hori hala bada IKUSONIK-ek oparituko duen diska irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarririk) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez!

11. aleko sariketaren erantzuna «Errekatxu kaletik Bolinguarako bidean dago». SARITUA: YON IRIONDO ARRIETA, Urki Kalean bizi dena. HURRENGO SARIKETARAKO URTARRILAREN 15ERAKO BIDALI BEHAR DIRA ERANTZUNAK. SORTE ON!!!

EIBARKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA
«... Eta Kitto Sariketa»

IKUSONIK

- Euskaraz
 - Amets prefabrikatuak (Hertzainak)
 - Pazko gaiardi ondoan (B. Lertxundi)
 - 12 (Mikel Laboa)
 - Datorrena datorrela (Oskorri)

Diska salduenak

- Erdaraz
 - El tuto Pavaroti (Pavaroti)
 - Opera Magna (Luis Cobos)
 - Boom 5 (batzuen artean)
 - But seriously (Phil Collins)



Gabonetako ...eta Kitto!



ANTZINAKO KANTAK

*Artzain batzuek datoz
pozak itxuturik
Belengo estalpea
ezin bilaturik
nun jaio ote da
ez dago zalantzarik
aingeruzko edurra
jaitsi da zerutik.*

*Artzain buru zuri bi
Antton eta Peru
Belengo estalpera
etorri zaizkigu
sartu dira barrena
Manueltxongana
eta eskeini egin diote
arkumetxo bana.*

*Urte berri berri
txarri belarri
daukadanak ez
daukanari
nik ez daukat eta neri
kantaretan bat
kantaretan bi
ekazu aginaldo
Jaingoikuagatik
aginaldo aginaldo
gastañak bota
ta ixilduko.*

Kaixo irakurle, urte luze oso bat daramagu elkarren arteko harremanetan eta gabon hauek behar diren bezala ospatzeko «...eta Kitto»ren ale berezia kaleratzeko ideia bururatu zitzaigun uda «...eta Kitto» ibiltarixa atera genuen bezala. Ale honen bidez gabonetako ohituren jorraketa eta eboluzioa aztertu nahi izan dugu. Gabonak normalean etxean igarotzeko jaiak izaten dira baina badira kasuak non derrigorrez atzerrian igaro behar dituztenak, guk hoietako kasu bat zuenganatzen dizuegu. Egun hauek kontsumorako aproposak izanik, gai honetaz elkarrekin ezberdinetako arduradunengana jo dugu gorabehera guztiak ezagutu ahal izateko, azkenik eibartarren eritzia gabonei buruz aurkezten dizugarik Zuen gustokoa izango denaren ustetan Zorionak eta urte berri on!

GABON JAIEN EBOLUZIOA

Yosu Arkotxa Mutrikun jaiotakoa bada ere eibartarra dela ere esan dezakegu. Euskera biziki maite duen gizona dugu eta lan horretan ez du izerdirik aurrezten baizik eta guztia ematen saiatzen da.

Aintzineko gabonetako ohitura zaharrak desagertzen doazen neurrian berriak sortzen ari dira. Zilegi da ohiturak ere belaunaldiak pasa hala birmoldaketa jasatea, baina atzera begiradaxo bat luzatzea gero aurrera pausu finko eta zihurrak emateko ezinbestekoa gertatzen zaigu. Esan bezala aintzinean orain modura gabonak jai bereziak izaten ziren. Dirudienez gabon giroa San Andres egunean hasten zen. Egun horretan hasi, eta Abenduaren 24rarte (beraz 25 egun) eguneroko 40 «Agur Maria» erreza izaten ziren. Beste otoitz txiki bat «jakulatorio» deritzana ere errezatzen zelarik. Rito berezi hau ospatzeko egunero arratsaldeko zapziretan biltzen ziren. Hunkitasunezko egunak izaten ziren, usain erlijiosoa ezabatzen doan ehinean, kontsumoa eta publizitatea nagusitzen ari direlarik.

Euskaldunak betidanik izan dugu abeslari trebeak izatearen ospea eta gabonetan beharrezkoa izaten zen zaletasun horren azalpena. Tamalez kantatzearen ohitura jatorra ere baztertu dugu nolabait tradizio guztiak desagertu arazteko gogoz.

Bazkari eta afari goxoak egiteko ezaugarria ere ezaguna da, inork ez bait dio gozoki bat ezezt esaten. Olio aza bustinezko topinetan prestaturik, bisigua, makalaua, intxaur

saltsa, aixa eta sagar saltsa izaten ziren «menuaren» osagaiak eta izarrak.

Olentzeroren popularitasuna aspaldikoa ez bada ere, denboran atzeruntz begiratu beharko genuke olentzeroren oinarriaz jabetzeko. Sorreran irudi paganoa bazuen ere gaur egun guztiz maitakorra agertzen zaigu bere aurpegi traketsaren azpitik. Irudi pagano horrek iskanbilak sortarazten zituen, batzuk defendatuz besteak gaitzetsiz.

Kuriositate modura aipatu, gerra garai hoietan, monjak konbentuko ateak irekitzeko ohitura zuela jendea barrura sartu zedin.

Monjak musika tresnaz abesti ezberdinak abesten zituzten baina gabon gauean jendea mozkortuta agertzen zelako ateak itxi zituzten eta ondorioz ohitura horren ospakizuna ahaztuzten joan zen.

Gerraren ondorioak ere nabaritu ziren gabonak igarotzerakoan. Gabon jaiak politizatuz joan zen eta karlistek gabonak erdaraz pasatzen bazituzten abertzaleak ordea euskeraz sekulako amorrua sortzen zelarik. Ez gaitzela erori harri berdinean eta akatsengandik irakurketa sakon bat borobildu dezagula.

GABON JAIK SOBIET BATASUNEAN

Hamauru urte zituela bidali zuten beste hainbat eta hainbat haur euskaldunekin Sobiet Batasun aldera. Gerra giroa zen eta tropa frankistak guda irabazten ari ziren, alemanen laguntzaz (Gernika 37). Kaxioanoren abestiak dioten modura «Itsasontzi baten Euskalerritik kanpora naramate eta ez dakit nora», Fernando ere beste 1.800 haurrekin bidali zuten nazio ezezagun eta arrotzera. Gurasoak bertan geratu ziren, itzultzean 33 urterekin ez zuten aita berriro ikusteko aukerarik izan eta ama minbizirik aurkitu zuen. Urte latzak pasa zituen Fernandok Sobiet Batasunean baina ez zaio aurrepian inolako gorroto keinurik antzematen errusiatarrez hitzegiterakoan, alderantziz hitz guztiak laudogariak luzatzen ditu «oso ondo hartu gintuzten, hemengo baina jende hotzagoada baina guztiz jatorrak dira, hotzetasuna agian egiten duen eguraldiagatik izango da».

Lehen urte haiek gogorregiak izan ziren, etxe berezietan bizi ziren haur espainiar guztiak. Helduago egin zenean ikasketak burutzen hasi zen, lanean ere aritzen zelarik biak tartekatuz. Ilgerra mundiala piztu zenean egoera okertuz joan zen baina ez zuten gerrara joateko obligaziorik eta lanean jarraitu zuten jo ta fuego. Oraitzen da nola Leningradoko lagunak gerrara joan eta ez zirela gehiago itzuli.

Fernando Lizundia 14 urte zituela Sobiet Batasunaren bidali zuten beste hainbat eta hainbat haurrekin batera. Sobietarren berotasunak ohitura eta hizkuntzaren izotz oztupoak urtu zituen.

«Euskaldunak irudi ezinhobea genuen urte haietan, gainera gerra garaian Euskadiko futbol selekzioa adiskidetzazko partiduak jokatu zituen eta errusiarrek ziotenez euskaldunengandik ikasi zituela futboleko jolasten» adierazi zigun Fernandok barre ozen bat luzatuz.

Gabonei buruz hitzegiterakoan zera aipatu zigun «euskaldunok batera elkartzen ginen eta ospakizun berezia egin ondoren, euskal abestiak kantatzen genituen, ez ziren halere hemen eta orain gertatzen den bezala ospakizun entzutetsuak, xume eta sinpleak baizik».


Bizirik ditu Fernandok igarotako urte haien oroitzapenak eta berak esaten zigun modura «liburu bat idazteko aina ipuin kontatuko nizuke» baina nahiak askotan errealitate bihurtzen badira oraingo hontan liburua ezik, testimonio edo aitorten honekin konformatu beharko gara.

Azkenik urte berria errusieraz — opa zigun guztioi

**C HOBbIM Togom!
C HOBbIM CHACTbEM!**

LEHENENGO GABON JAI


Pedro Alberdi Elosutarra dugu jaiotzez baina eibartarra adopzioz. Ederki asko gogoratzen ditu txikitako gabon ilusioak, baita garai haietan bereziki dastatzen zituen jaki goxoak.



Gabonak ospatzeko ohiturak zeharo aldatu dira. Hau esanda ez dut inolako aurkikuntza berririk aipatu baina lehengo ohitura zaharrak oroitzea ez da soberan etortzen den gauza. Pedro Alberdi Elosun jaiotako eibartarra dugu. Berak aipatu zigunez, gaztea zenean baserriz baserri ibiltzen ziren dirua jasotzen, kantak abesten zituzten bitartean, jasotako xoxak beraien-tzat izaten zirelarik. Egun hoietan aparteko egunak izanik, gabon gauetako afaria eta eguberriko bazkaria bereziek izaten ziren, begiekin jateko moduko jakiak prestatzen ziren. Urtean zehar eguneroko babarrunak alde batera utziz, baba zuriak, makalaua, intxaur saltsa eta konpota izaten ziren sabel estuak loditzeko eta betetzeko, gerriko ere lehertzeko zorian jaten zutelarik. Harrigarria badirudi turroia dastatzeko aukera zuten, txanpana ordea guztiz ezezaguna zen. Gaur egungo gau-pasa eta antzekorik ez ziren izaten eta goizaldeko ordubiak edo hirurak aldera guztiak lotara joaten ziren, halere baziren garai haietan ere parrandarako grina erakusten zutenak eta baserri batzutan izaten zen beranduxearte dantza eta abesteko aukera. oparien tradizioa ere aspalditxotik dator eta gaur olentzerori eskatzen badizkiogu opariak orduan erregeak izaten ziren haurren ilusioa pizten zutenak. Zapatak txukun-txukun garbitu ondoren, hurrengo egunean zalaparta izugarria sortzen zen batek besteari opariak erakusteko irrikiz. Gaur egun astebukaera guztiak gabonak izaten dira eta ez dago aintzinako ilusiorik.

GABONAK = ZORIONAK?

GABONETAN ERE, EUSKARAZ



Erosketarako libretatxoak, hiztegiak eta egutegiak banatuko dira

Ez dago inongo zalantzarik: Gabonak dira erosketak gehien egiten den urteko sasoi. Erosketa giroan, eibartarren %21ak bakarrik erabiltzen dugu euskara, nahiz eta bizilagunen %44-a izan gai euskaraz erosketak egiteko. Datu hori, pasa berria den hilabetean, Azaroan Euskara Batzordeak buruturiko kaleneurketa egiterakoan ateratakoa da. Atzkaldean dago ena ser hemen. Hori dela eta, Udal Euskara Batzordeak «EROSKETAK ARINAGO EGITEKO» izenburupean libretatxo batzutanatu ditu herri osoan erosketetan euskararen erabilpena sustatzeko eta indartzeko. Hauen barruan, erosketa-erlorkako hiztegiak, elkarrizketarako esaldiak, erosketen munduan sarritasun handiak erabiltzen direnak eta, guzti horretaz gainera, enkarguak patxaran eta ezer ahaztu gabe egin ahal izateko, koadernoak zuzia. Hemen, arlokako hiztegiak begiratzu egin beharrenek enkarguak apuntatuko dira. Beraz, bistan dagoenez, erosketak euskaraz egin dituenarendako erraztasuna eta egiten ez dituenarendako bideratu nahia da tresna honen helburua. Jakina, dendetan ere, guzti honen laguntzarako txartelak jarriko dira.

Gabon inguruko dibulgazioa

Erosketako mundu horretatik aparte, aurten ere, iazko moduan, Euskara Batzordeak bere zerbitzuaren berri emanez, dibulgazio lana egingo du. Alde batetik, Gabon inguruan erabiltzen diren hitz eta esaldien hiztegiak banatuko dira eta, bestetik, 700 egutegi handi eta 15.000 txiki. Azken hauetan beharrezkoak diren telefono-zenbakiak agertzen dira.

Dibulgazio-lan honekin, eibartarrei Euskara Zerbitzuaren berri eman nahi zaizue eta eskaini ditzakegun zerbitzuaren aukera. Hala nola, itzulpen zerbitzua: prezio-zerrendak, oharrak, iragarkiak... euskaraz ere egin daitezke.

Baitan Aholku Zerbitzua ere, euskararen inguruko edozein gairi buruz informatzeko: datu estadistikoak, legedia, pertsona eta leku izendegiak e.a. Beraz, badakizue, gurekin harremanetan jartzeko 11 80 64 deitu besterik ez daukazuen.

Gabonei buruzko eritzia borobiltzerakoan, Eibarko gremio organizatuengana jo dugu kontsumo inguruan xehetasunak ezagutzeko. Elurrik ez badu egiten ere, gabon jai hauetarako Kiub-ekoei jostailu eta erosketei buruzko kanpainak antolatu dituzte ahalik eta informazio gehien zabaltzeko asmoarekin. Gure helburua, aldizkari honen bitartez kontsumoaren hazkunde izugarri aztertzea izan da, horretarako KIUB, dendari eta tabernari elkarteko arduradunekin hitzegin dugularik. Amaitzeko eskerrak eman zuen kolaborazioagatik

TABERNARIEN ELKARTEA

Tabernarietat ere gabonak hurbiltzen ari dira, honegatik Eibarko «Grupo Centro Hosteleria»-ko arduradunekin solasalditxo bat izan genuen gabonei buruzko eritzia jasotzeko eta aldi berean elkarte honen zentzu eta funtzionamenduz zertxobait jakiteko. Gaur egun 48 tabernari daude elkarte honen barne Aldatzeko jabeek adierazi zigitenez. Funtzionamendua oso sinplea da, hileroko elkarten dira ekintza ezberdinak antolatzen edota arazoak konpontzeko. Elkarteak presidentea badu urtero aldatuz doana halere barne egitura nahiko kaxkara dute horrela ekintza ezberdinetarako dirua jarri behar denean bilerak berezia antolatzen dute eta behar den ainako diru kopurua ezartzen dute ekintzak burutu daitezke.

Aldatzeko tabernariak adierazi zigitenez «tabernariok irudi eskasa dugu jendearengan, peseterotzat hartzen gaituzte baina jendea ez da ohartzen edozein txapelketa antolatzen denean guregana etortzen diren sariak ordaintzeko eta diru laguntza emateko. Egia da publikoak beti arrazoia duela, publikorik gabe ezingo ginatxekelako bizi baina askotan jendea oso lotsagabea izaten da geure lanbidearekin».

Gremio honen inguruan aldaketak ematen ari direla guztiok dakin gauza da baina zertan nabaritzen diren aldaketa hoiak galdetzerakoan hauxe erantzun zigiten «giroa guztiz aldatu da, lehen tabernetan ez zen musikarik jartzen orain berriz derrigorrezkoa bihurtu da, honek suposatzen duen gastua disketan. Gainera oraindik ere ez bada hain nabarmena jendeak denbora gehiago irauten du tabernetan, honen arrazoirik nagusia prezioen igoarakada izugarria da. Bestalde gazteek ardoa alde batera utzi dute eta zuritua ari da nagusitzen poeteetan».

Guztintzat argi dagoena eta ikusten duguna zera da, tabernak lehen eta orain ere dirua ematen dutela eta ez ditugula ikusten tabernak itxitzen, zergatik ote?



OMIC

(Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa)

1988ko Urriaren 5ean publikoarentzat sortutako bulego berezi honek kontsumitzaileei informazioa eskaintzea du helburu nagusizat. Gaur egun bulego honen ardurua Paki Rodríguez esku dago eta berak aipatu zigunez «jendea ez da naiz etortzen, behar lukeen baino gutxiago etortzen da, hona hurbiltzen direnak arazoak lepoa estutzen dietenean azaltzen dira».

Etxe bizitzen inguruan sortzen diren problemak izaten dira sarri eta ugariak, salaketa gertatzen denean bulego honek behar den erakundera bidaltzen ditu salaketaren zergatiak, Kasu gehienak konpontzen direlarik, 100 bat kasutik 99 bideratzen dira.

Gabonak gainean ditugu eta egun hauetan prezioek izaten duten igoarakada inkontrolatuetaz, galdetzerakoan zera erantzun zigun «kontrola ezinezko gauza da ondorioz jendeak produktuak aurretiaz eros ditzala gomendatzen dugun».

Egun hauetarako OMIC Adecur elkartearekin batera kanpaina bereziak antolatu dituzte, bata jostailuei buruzkoa bestea prezioen igoarakadei buruz.

Gaur egungo gabonak oso ezberdinak direla, inork ezin ukatu, famili giroa galduz doa, jendeak jadanik kalean igarotzen ditu gabonak eta honek tradizioen deuseztapena dakar. Bestalde egun hauetan diru asko gastatzen da, askotan alferrik ere biltzen da. Badirudi jendeak diru soberan duela eta poltsikoetan edukitzeak aztoratu egiten duela...

Julia Balenziaga

Marisa Cid

JOLASA ETA JOSTAILUAK

Joan zen azaroan, Eibarko Udaltxean, jolasa eta jostailuei buruzko hizaldi-sorta bat eskaini zen, KIUBak eta Kultura Sailak antolatuta.

«Jostailuak nola erosi» izenburupean, pedagogo eta publizistek «jolasten ikasi» eta «publizitatea eta jostailu»i buruz luze eta sendo mintzatu ziren.

Han esadako gauzarik azpimarragarrienak hauek izan ziren: JOLASTEA DA GAUZARIK INPORTANTEENA.

Jolastea oinarri-oinarrizko tresna da umearen desarrolloan. Maila intelektualean nahiz arlo afektiboan eta sozialean eragin handikoa da. Pedagogoei diotenez, jolasa indartu behar da jostailu bultzatu beharrenean. Umeek ez dute behar jostailu sofistikaturik jolasteko, «jostailurik» egokienaren jabe direlako: euren imaginazioa.

Gurasoek hauxe pentsatu beharko lukete: ea beraien seme-alabekin behar beste jolasten duten. Hain zuzen ere, Iker edo Mirentxurentzat, zaldirik politena edo motorik ederrenak, eurak dira, gurasoak, alfonbra gainean jarri eta zaldia edo motorrarena egin umetxoek zaldian edo motorrean ibil daitezke.

Badakigu beti horretan ibiltzea zaila dela, baina kontuan hartu behar da, eta ez erosi jostailuak umeak kuartoan sartu eta «ea lasai uzten gaituzten» esan ahal izateko.

JOSTAILU ONDO AUKERATU

Jostailuen berri telebistaren bidez ematen da ia beti, izan ere telebista gehien ikusten dutenak haurrak izaten bait dira.

Helduok, jostailuak erosten ditugunok, jostailuaren publizitateak jostailuaren imajina aldarazi eta gezurtu egiten duela jakin behar dugu.

Izan ere, txikiak ezin dute bereiztu jostailua bera jostailu hori aurkezterakoan erabiltzen den montaje guztiaz.

Horretarako, frustraziorik sor ez dadin, jostailu aukeratzekoan honako erizpide hauei jarraitu behar zaie:

- Telebistan ikusitako jostailu bat eskatzen digutenean, umea dendara eraman behar da jostailu hori benetan nolako den ikus dezan.
- Umearen izakera oso kontuan hartu behar dugu jostailurik egokiena aukeratu ahal izateko. Asko mugitzen den ume bati puzzle bat erosten badiogu ere ez dugu lortuko geldi edukitzea.
- Adina kontuan hartu behar da.
- Jostailuak umearentzat erosten dira ez norberarentzat (txikitari nahi izan genuen hura eta sekula eduki ez genuena)
- Jostailu sinpleak, konponterrak, sofistikaziorik gabekoak erosi behar dira.
- Jostailua arriskurik gabekoa izan behar da.
- Ikuspegi seksista ez dezala bultzatu.
- Biolentzia eta gainurua eramatean ez duena. Bai ordea, besteekin jolasteko modukoa.
- Jostailua ezin da edozein modutan erosi: zein umetzako den kontuan hartu behar da.

Amaitzeko, gaian adituak direnek diotenez betiko mitoetaz ahaztu egin behar gara, Errege, Olentzero etabarretaz. Izan ere, umeek ez dute pentsatu behar jostailuak norbaitek dohan ematen dituenik. Egokigoa da eta aberasgarriagoa, egun horietan familiaren artean opariak elkar ematen direla ikustea, opari horiek esfortzu bat behar izan dutela eta ez direla dohan iristen batek daki nondik. Era berean, eurak ere, oso txikitatik familiarentzat opariak egiten ohiu daitezela: plastilinazko papina edo kolorez betetako dibujo bat opa dezatela, hain zuzen euren esfortzua, maitasuna eta imaginazioaren bidez egindakoa. Guk geuk ere gauza bera egin dezagun umeekin.



EUSKARA ZERBITZUA
ZEURE ZERBITZURAKO

URTE BERRI ON

Eibarko Udala
Euskara Batzordea

Telefona: 11 80 64

HERRI OSTALARIEN TALDEA
Grupo Hosteleria Centro Eibar

GABON JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU



GALDU BILDURRA — ZATOZ INFORMATZERA
Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa.
Telf: 11 38 43

EIBARKO DENDARIEN
ELKARTEA

JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU



KULTURA SUSPERTU
NAHIAN DIHARDUGU

URTE BERRI ON

Eibarko Udala
Kultura Batzordea

Telefona: 11 68 45

Gabonetako ...eta Kitto!



Pedro Zelaia: «Gehiago dogu gizakiok elkartzen gaituena banatzen gaituena baino»

Koldo Medrano, udaltzaina. «Mozkor franko izaten dira egun hauetan»

Olentzero, ...eta Kittorentzat eksklusiboki: «Aurten eibartarrentzat ikatz piloa ekarriko dut»

GABONAK: Famili giroa deusezten

Nahi ta nahi ez gabonetan ingurugiroak kontsumoaren eragin kutsakorra pairatzen du. Kanean, dendetako eskaparartetan, irrati eta telebistatik egunero gogoratzen digute gabonetan gaudela eta ez dugu ihes egiteko aukerarik. Jai hauen inguruan eritzi kontrajarriak entzuten dira, badira zentzu erlijiosoz ikusita mantendu beharreko ospakizuna dela aiapatzen dutenak eta badira jai hauek guztiz gorrotatzen dituztenak, kontsumismo ero honek gabonen irudia zikindu duelarik. Baina gabonei buruzko ikuspegi ezberdinak ezagutzeko gogoia genuen eta horregatik, **Pedro Zelaia** Amañako apaizarengana hurbildu ginen bere pentsakizunak idazteko asmoz. Aipatu zigunez «egun hauetan etxean zerbait berezia egiten dogu, adibidez Biblia irakurtzen dogu eta telebista ere ikusten dogu. Afaltzeko maraskiloak eta oilaskoa jaten ditugu Bilboko ur apur bat ere edaten dogularik bainan mozkortu gabe». Jakina da ohiturak aldatzen ari direla eta gabonen inguruan ere aldaketa hauek nabarmenak dira «famili giroa apurtu da eta egun hauetan gastu larregi egiten da hainbeste behartsu egonda». Urte berri hobeagoren itxaropenaz gehienok desio


bat eskatzen diogu hastear dagoen urteari, **Don Pedrok** ere bere eskakizuna jakin arazi zigun «Euskalerrarentzat eta mundu osoarentzat pakea, euria ere bai oso egoera kaxkarrean aurkitzen bait gara arazo honekin». Apaiz baten eritzia jasondoren, Eibarko udaltzain batengana hurbiltzea erabaki genuen, egun hauetan eibartarrak nola portatzen garen jakiteko. **Koldo Medrano** 28 urtetako bergatarra du, beraren ustez «jai hauek rollo bat dira bi egun ezezik». Berezi urteko azken eguna izaten da entzutetsuena eta egun horretan lana bikoiztu egiten da, alkoholak arazo ugari sortzen bait ditu. Anekdotan moduan, **Koldol** gertakizun xeble bat kontatu zigun «behin San Andres elizako altaren tipo bat aurkitu genuen etzanda guztiz mozkorturik». **Olentzeroren** ohiartzunak hasi dira entzuten eta norberari dagokiona tokatu zaio. **Olentzerorengana** ere joan ginen eibartarroi zer opari ekarriko dizkigun ezagutzeko irrikiz «aurten ikatz piloa banatuko det. Badira batzu salbatu direnak baina hoiak gutxiengoak dira». Datorren urterako itsaropentsu agertu zitzaigun, uraren arazoa konpontzeko abestea gomendatu zigularik.

ZER IRITZI DAUKAZU GABONEN GAINEAN?




Arrate Martinez. 25 urte. Haurtzaina

Ez zaizkit batere gustatzen. Kontsumoa nagusitzen diren egunak izaten dira. Nik neure aldetik ez ditut ospatzen.



Igor. 21 urte. Enpresarioa.

Jai hartzen duenarentzat demasa, besteontzat ordea lana besterik ez dute suposatzen ... eta Kitto



Ana Ramirez. 18 urte. «Gurbil»en lanean

Gabonak jai familiarrak izanik, senditartekoekin igarotzen ditut gehienbat gurasoei gustoa egiteagatik.



David, Ruben, eta Sergio 9, 10 eta 11 urteko ikasleak

Oso, ongi daude, batez ere opariengatik. Baita ere argiak jartzen direlako eta herria polita geratzen da.



Manolo Magro. 38 urte. Tabernaria

Oso jai arruntak dira. Gehiago esan dezaket «koñazo» bat dira.



Aitor Arakistain. 23 urte. Enplegatua

Oporrak direla eta ondo ikusten ditut, hala ere egiten ari den eguraldi honekin ez dirudi gabonetan gaudenik.



Aitor Eguren. 19 urte. Futbol arbitroa

Urte zahar gauean kriston moskorra harrapatzen saiatuko naiz.



Asier eta Maritxu. Langileak

Ez zaizkigu batere gustatzen. Kaka zaharra besterik ez dira. Nahiago ditugu edozein astebukaera.



Amaia Murua. 20 urte.

Kazetaritza ikaslea
Gabonetan oporrak direla eta gustora pasatzen ditut. Atsegin opariak egitea baita jasotzea ere. Agian aurten gabonak Eibartik kanpo igaroko ditut.



Ana Garmendia. 50 urte.

Etxekoandrea.
Oso politik izaten dira eta oso gustora sentitzen naiz elkarrekin guztiak batzen garenean. Halere nahiko ezkorrak ikusten ditut jendea oso berekoa delako.

OLENTZERO

Juan Garmendiak Larrañaga — Antropologa

Olentzerok, Abenduaren 24an Euskalerriko txoko guztiak beteko ditu, gero eta indar handiagoa hartzen ari den irudi jatorra dugularik. Baina non eta noiz sortu zen Olentzero ospatzearen ohitura inork gutxi daki. Dirudenez ezin daiteke zehazki kokatu non eta noiz sortutakoa den baina badirudi aintzinean olentzero enborra bazela, sukaldetan su ondoan jartzen zena, eta hortik datorrela tradizio berezi honen sormena. Mitologiaren arabera, olentzeroren enborren gainetik pasa ezkerreko, gaitz guztiak senda-

tzen omen ziren. Gaur ezagutzen dugun pertsona tankeraz, Bidasoa inguruan sortu omen zela diote, urteak pasa hala hedatuz joan delarik. Aintzinean olentzerok interpretazio ezberdinak izan zituen, hauetariko bat «La sazón de lo bueno» adierazi nahi zuela zioten. Honen argibidea, olentzero hitza **onentzero** hitzetik sortua izatea litzeteka, onen... ona.

Gaur egungo olentzero ohitura berrikoa da, Jesus jaio denaren berriematea dugu, arlote aberts bihurtu zaigularik folkloreaken poderioz.



NARBAIZA:

Bertsoz-bertso euskara ondo gordetzeko

Narbaiza bertsolari eibartarra oiñ 23 urte edo hasi zan bertsoan. Bertsolarien mundua euskaldunontzat oso interesgarria da; bertsolaritza badiralako gure izakeraren agerpen, historia, abesti, kontu eta beste batzuk. Oinarrizkoa gure berbeta da bertsolaritza. Oingo honetan Narbaizak bere bertsolaritza izakera agertzen desku.



Narbaiza, eibartar bertsolaria, amaitu berria dan txapelketako saio batean kantari.

«...eta Kitto»ri bertsoa

Lagun talde txiki bat umil eta suabe lan ordutik kanpora alkartzen zerade buru belarri lana xentimorik gabe hori da saiatzea herriaren alde

Aintzat hartuaz zaharrak neska nahiz mutiko nahiago nuke hola baziña betiko kanpokoen hikzuntzak ez gaitzen itto zorionak ta segi euskeraz ta kitto

—Bertsotan zelan eitten zenuen?

«Beno, domeketan ta lagunaren artian ba... badakizu, trago batzuk hartu eta bertso batzuek kantau ba... ikasitakuak ta... gero barrirak be eiten hasi ta... holaxe».

— Zergaitik bertsoarako zaletasuna?

«Ba eztaikit. Ze... txiki-txikittatik bertsoetarako zaletasuna baneban nik. Arrateko jaiak ziala ta pelotan ari baginian ta bertsolariak hasten zianian... nik frontoittik alde ta... gogoratzen dot zelan plazara juten nitzan bakar-bakarrik. Han zian Uztapide ta... Basarri ta...»

—Eibarren egon da bertso zaletasuna? Oiñ badao?

«Asko edo gitxi dauan jakittekot eztaikit zenbat lan egin dan Eibarren aspaldian. Aspaldian jaialdi bat ez da antolatu behar dan moduan ta... eztaikit-eztakitt, holan itxura antzean antolatu zala izango dira dozena bat urte, edo gehiago izango dira. Jaialdi bat ganoraz antolatu dala urte mordo bat dira.

Norbaitzuk mugittuko balia edo bagina, udaletxiak zeozer eskatu ezkerok: nik uste ba... lagunduko leukela».

—Bahotxan bizitziak eragina daka bertsoak botatzerakuan?

«Bai-bai-bai... nik uste baietz eta dexente gañera. Bertsolaritza beti izan da ba... batak besteara aittu ta... hari erantzun: erantzun zorrotza emon ahal bada, eta bidea moztu... ta holakuak.

Bertsolaritza batua ta euskalkixak, danak sartzen dia. Baña orduen eh... gertatzen dana da ba, batua ondo menderatzen duenak ba... han badauka oinarri bat ta aparte, duda barik, bere herriko euskera menderatuko dabela ta duda barik ba... ondiokan

erretzasun eta aberastasun gehixao izango dabela bertsoak eitteko.

Bertsolaritza badauka eragina biarrak. Ba beti. Ze... etxe pribatua; bertsolari bat dauan etxean, nik uste pixkat etxe diferentea dala edo bizitza diferentea dala, ezta? Etxean guk sekula ez dou ezta pentsatu be ez erderaz berbarik, ezer esaterik eta eitterik be ez.

Baia horretaz aparte ba... uda sasoiak ta, domeketan ta, izaten da; ni etxetik kanpora juaten naiz

• «Tiki-ttikittatik neban nik bertsoarako zaletasuna»

• «Eibarren jaialdi bat ganoraz antolatu dala urte mordo bat dira»

• «Gaur jendeak ulertzen dau bertso ona ta txarra zein dan»

• «Herri baten ez da txapelketan beste sufritzen»

egun guztirako, eta beti, horrek be beti dauka eragina».

—Herri baten izakeran bertsolaritziak zelako garrantzia dauka?

«Ba... nik uste... eragin dexentea daukala. Izan behar leukela behintzat Euskal Herrian. Beste gauza bat da ba... lan mediokre bat egiten danian edozer gauzatan ba... hori pasatzen da inor konturatu barik baña... bertsolaritza ona bada, esan nahi dot, bertsoan ondo egiten bada nik uste dot garrantzia edo eragin dexentea daukala herri baten. Ta baita jendeak euskera aldetik ... bestela aitzen ez dien berba asko aitzeko ta...

Nik uste, sekula baiño gehiago gaur jendeak ulertzen dabela bertso ona ta txarra zein dan: bardin hemen zein beste edozein lekutan».

—Bertsolari txapelketa zer da?

«Galdera zabala da, ezta? Baia begira, txapelketa da apostua. Txapel bat dauanian txapela onenak jatzeko montaje bat einda dao; hala planteatuta dao behintzat. Nik uste hori kirol gehienetan pasatzen dala ezta? Ta gero ba... jendian arrakasta izugarria da, ba... txapelketa daonian bertsoak entzutera juaten da jentia. Baña zelan dan neurtzea edo apostu bat; euskaldunok nik uste beti izan garala apustu zale, ta

nahiz ta norberak jokatu ez, ingurukoak jokuan gustoz ikusten ditugu».

—Bertsolarixak lotsa gitxi, ezta? Hala ezta?

«Hori da jende askok uste dabena. Han imagina bat eman behar dozu, ta zu ez zara joango ba... esate baterako... katxondo baten... lurjota zagozen itxuriakin, ezta? ... ahal dala behintzat. Baña prozeziua barruan joaten da. Asko larritzen da pertsonia baña itxurak eitten dira. Herri batean ez da txapelketan beste sufritzen. Bertsolariak pozik gelditzen da lan on bat eitzen badau ta bere buruakin konforme egon ezkerok nahiz ta ez badu irabazten be.

—Zer iruditzeatzu «... eta Kitto»?

«Egia esan eta nik uste, ezta jaboia emoteagattik baña... gauza polita da, gañera herrian eh... ez takitt pa, inun eitten eztan moduko lan bat da ta... herriko gauzak dira ta... oso, oso polita.

Gañera, konturatzen zara; jende gaztiak eta zaharrak tak!! hartu eta ... rra!! doblau txukun-txukun, tolestu, eta jasotzen debela. Hori irakurtzeko da, eta irakurtzen dan artian, bejondaizuela!! Ta segi aurrera!!

THE JAZZMAN
GARAGARDOTEGIA

Gabon eta Urteberri onak opa dizkizu

San Juan kalea
Tf: 70 06 82

TXURRUKA
OPTIKOAK

Jai Zoriontsuak opa dizkizu

Telf.: 12 70 21
Bidebarrieta, 62 EIBAR

Sendabelarrak,
eregimeneko
elikagaiak

ITXESI
DIETETIKA ZENTROA

Bidebarrieta z/g
Tfna. 11 32 19
Eibar

CASTAÑO
ILEAPAINDEGIA

• Ilea ez jausteko tratamendua
• Depilazio elektrikoa
• Solariuma

Isasi 9-3° — Tf: 11 29 67

GALLO JATETXEA

Kazuelatxoak
Arrazioak eta menuak

Telf: 11 70 04
Bidebarrieta, 42 EIBAR

Comercial ETESA

BULEGO-MATERIALA-ALTZARIAK

BIDEBARRIETA, 66
TELEFONO 12 19 73 - 74
20000 EIBAR GIPUZKOA



- **Bernardo:** «Euskera hutsean egiten den momentutik oso interesgarria ikusten dut»
- **Mari Jose:** «Lehenengo orria da gehien gustatzen zaidana»
- **Iñaki:** «Gustatzen zait. Agenda oso erabilgarria da nere lanerako»
- **L. Fernandez:** «Eibartarrez idatzitako orria eta inkesta fotografikoak dira gehien gustatzen zaizkidanak»

Zorionak, beti!!

«...Eta Kitto»-k bere lehen urtebetetzea ospatzen du!, hilean behin irtendako aldizkari honen 12. alea daukazu, beraz, zeure eskuetan. Orainarte ateratako aleetan eibartar famatu batzuekin izandako elkarriketak eskeini dizkizuegu, gaita herrian interesgarriak iruditu zaizkigun gaiak azaldu ere. Honetaz gain jendearen eritzi ezberdinak jaso, lehiaketak, agenda,... etabar ahal den hobekien eskeintzea izan da geure helburua. Guretzat, ikasleak izanik gehienok, esperientzia guztiz berria izan da, eta gauza asko ikasi ditugu igaro den urtebete honetan. Aldizkariak aldaketa batzuk jasatu dituzte hasieratik hona, guri komenigarriak iruditu zaizkigun aldaketak, artikuluen kokapenean batez ere, honen ondorioz kalitatea hobetuz.

Uztailean guretzat hain garrantzitsua izan zen «Rikardo Arregi» kazetaritza saria irabazi genuen, Andoingo Udalak antolatua. Guk ateratako artikulua guztietatik Candido Eguren-i egindakoa izan zen irabazle; guzti honek guretzat asko suposatzen zuen, alde batetik Euskal Herri mailako sari bat irabazi, eta bestalde gure lana premiatzeko modu on bat izan zelako.

Profesionalen eritziak

Jendearen artean edukitako harrera ikusteko egin dugu inkesta fotografiko hau; baita ere irratian eta prentsa munduko pertsonai batzuei eritzi eskatu. Adibidez **Bernardok**, Arrate Irratikok komentatu digunez «euskara hutsean egiten den momentutik oso interesgarria ikusten dut, are gehiago euskararen gaur egungo egoera ikusirik. Horrialde bat eibartarrez idaztea oso garrantzitsua iruditzen zait; batzuren ustez beste herrialdeetako euskara geurea baino askoz hobea da, eibarren txarto hitzegiten dela diote, eta hori ez da horrela, beste edozein herriko euskara bezain ona bait da, gaine-

ra indartu beharra dago».

Bere ustez formatoa aldatu beharra dago, praktikotasuna falta bait zaio; «lau orrialde izan beharrean tamainu erdiko zortzi orrialde izaten hobeto ikusiko nuke, era honetan irakurketa askoz errezagoa izango litzateke, tabernetan toki gutxiago behar izango luke, eta psikologikoki ere gehiago izanda jendeak aldizkari itxura gehiago hartuko lioke».

Mari Jose Deiako korrespondentsala dena eta Eibar irratian dabilenak ere bere eritzi eman digu esanaz «geroz eta gustorago irakurtzen dut, Eibar-ko gauza askotaz enteratzen naiz. Lehenengo orria da gehien gustatzen zaidana, gainera azkenengo antzerkiari buruzkoa oso interesgarria iruditu zitzaidan. Hala ere ez dut pasatzen uzten inkesta fotografikoa, ea norbait ezagutzen dudana, edo lehiaketaren argazkia,... etab».

Iñaki Euskadi Irratian lan egiten duenak primeran dagoela esan zigun. «Gauza ona da horrelako zerbait jendeari eskeintzea. Ni Ermukoa izan arren orainarte «...eta Kitto» guztiak jaso ditut, gustatzen zaidalako eta nere lanerako oso erabilgarria delako, esan beharra dago gainera horrelako agenda bat ateratzen duen aldizkari bakarra dela. Zerbait kritikatzekotan horri kopurua izango litzateke, herrian gertatutako guztiari buruz hitz egiteko ez bait da nahikoa».

Luis Fernandez Eginen dabilenari inziatiba guztiz positiboa iruditzen zaio. «Gehien gustatzen zaizkidanak eibartarrez idatzitako artikulak eta inkesta fotografikoa dira. Hala ere azken hauetan jende gazte larregi agertzen da argazkietan, era honetan seriotasun pixka bat galduz. Ikusten dudan hutsunerik handiena propaganda falta da. Irraitan, aldizkarietan, ... anuntziatuz jendeak gehiago ezagutuko luke».

ZER IRUDITZEN ZAIZU

«...eta Kitto!»?

GUSTOKOA DUZU



Maite. 24 urte.
Udaletxean lanean.

«Oso ongi iruditzen zait euskara hutseko aldizkari bat ateratzea. Dena gustatzen zait, ez daukat inungo preferentziarik. Esan beharra dago Eibarko euskararen idaztea oso garrantzitsua dela. Segi aurrera!!».



Rafa Aizpurua. 61 urte.
Hojalaterua

«Ni Bergaran bizi izan arren irakurtzen dut noizean behin «...eta Kitto». Dena euskaraz izatean oso interesgarria iruditzen zait. Zoragarria izango litzateke Euskadi osoan hizkuntza berdina hitz egitea, hau da, euskara batua denontzat, eta aldizkari honek hau lortzen laguntzen digu».



Juan Luis. 33 urte. Langilea
«Euskara ulerkerrean idatzita dago nire ustez. Ni, euskaldun berria izanik, nahiko ongi ulertzen dut idatzitakoa. Gainera gai interesgarriak ikutzen dituzue. Gehien gustatzen zaidana kaletik egindako entebistak dira».



Laura Loidi. 57 urte.
Etxekoandrea

«Gauza ederra da geure herriko aldizkari bat izatea. Nik gehienbat Eibarko pertsonaien entebistak irakurtzen ditut; hobekien ulertzen dudana da eta baita gehien gustatzen zaidana».



Olatz Garro. 16 urte. Ikaslea

«Nire tabernan batzutan irakurtzen dut. Gehien gustatzen zaidana azkenengo orriko gaiak izaten dira. Hauek irakurri eta gero, askotan, nire aitzarekin hitz egiten jarduten dut, bakoitzak bere postura eta eritzi azalduz».



Begoña Arrieta. 42 urte.
Etxekoandrea

«Nahiz eta nik euskara ongi ez mintzatu beti ematen diot begirada bat. Elkarrizketak asko gustatzen zaizkit, batez ere modu honetan euskara batuan irakurtzen ohitzen garelako. Nire iloba beti nire hizkera zuzentzen aritzen da, berarentzat euskara batua bait da ongi dagoen bakarra».



Haritz. 16 urte. Ikaslea

«Oso gustokoa da niretzat, Eibarko erreportaiak oso interesgarriak iruditzen zaizkit. Guk, ikasleok, askotan irakurtzen dugu Institutuan. Horri gehiago edukiko balitu askoz hobeto egongo litzateke, gainera ekologiarri buruz zerbait gehiago sartuko bazenuten askoz hobeto».

AGENDA

Abenduan

Udaleko Kultura Sailak Antolaturik

23an: San Andres Parrokian. GABON KANTAK KONTZERTUA. Sostoa, Kontserbatorioko Haurren Koroa eta Txistulari Gazteen Banda. Arratsaldeko 7tan.

24an: OLENTZERO. Goizeko 11etatik aurrera. Bertan Txistularien Banda, Erraldoi eta Buru-handi, eta Patraka-Matraka Taldeak parte hartuko dute.

31an: Eguerdiko 1tan Gabonetako Txistularien Bandaren kontzertu berezia. Untzagan. Gauerdiko 1tan. BERBENA UNTZAGAN. LISKER Taldearekin.

30an: Unibertsitate Laboralean. ZINE MARATOIA. Ego-lbar eta Eibar Zine-Klubek antolaturik. Arrats. 7tatik aurrera.

URTARRILEAN

5AN: KABALGATA. Arrats. 5etatik aurrera.

7an: «IDATZI ERREGEEI» egindako Lehiaketaren Sari banaketa. Arrats. 7tatik aurrera. Susko-Erreak. «Pirotecnia Zaragozana». Untzagan. Arrats. 7retan.

9an: Udaletxeko Pleno Aretoan: V. EIBAR HIRIA IPUIN LEHIAKETAREN Sari banaketa.

13an: Kontserbatorioan. Saxo eta Klarinete Kontzertua. Arrats. 7,30tan.

UDALEKO EUSKARA SAILAK Antolaturik

• «AFRIKETAN» Eskolameek euskara praktikatzeko kanpaina. —Kontsumo tailerrak, jolasak, lehiaketak, e.a.

Abenduaren 26, 27, 28 eta 29

Urtarrilaren 2 eta 3an

Urtarrilaren 4 eta 5ean Jaialdiak Orbea Frontoian.

OLENTZEROAK

Abenduaren 22 eta 23an: Ikastetxeetako Olentzeroak herrian zehar.

Abenduaren 24ean: Gestora, Kezkea eta «AFARIKETA» programako eskolameen olentzeroak.

DISKA ETA LIBURU AZOKA

«EGUZKI» antolaturik Udaletxeko arkupeetan **Abenduaren 23 eta 24ean.**

Liburu aurkezpenak:

Koldo Izagirre
J.M. Elexpuru

POLIKIROLDEGIAN

Abenduaren 22tik, Urtarrilaren 7ra. GABONETAKO KIROL-TXAPELKETA. (Futbol-Sala, Esku-Pelota, Tenisa eta Squash).

NORK

ZER

• Koordinatzailea

Fernando Muniozguren

• Erredakzio-taldea

Ana Aizpurua

Idoia Arrillaga

Mireia Ugarteburu

Idoia Irazola

Fernando Muniozguren

Joseba Zinkunegi

• Argazkilariak

Joseba Zinkunegi

José Valderrey

• Komikia

• **Marrazkiak** Ander Gisasola

Leire Astigarraga

• Maketazioa

• **Inprimaketa** José Valderrey Antza